

EZTABAIDA FOROA 2

Koordinatzailea: Pello Aramendi

IRAKASKUNTZA-IKASKUNTZA PROZESUAK

Irakasleek prozesu honetan jokatzeko duten rola, zalantzarik gabe Hezkuntzaren kalitatearekin lotura zuzena du. Egun, bi ikuspegi alternatibo ari dira planteatzen gai honi dagokionez: alde batetik ezagutzen igortzaile den irakasle klasikoa eta ikaslearen ikasketa-prozesu aktiboa errazten duen irakaslea. Gero eta nazio gehiagotan ari da indarra hartzen bigarren ikuspegi honek.

Bestalde, zenbait ikerketek frogatzen dute, beti ez dagoela erlazio zuzen bat ordu lektiboaren kopurua eta emaitza akademikoaren artean. Ikerketen arabera edukin motak eta bereziki lan metodologia, faktore eragile garrantzitsuagoak izan daitezke.

KANPO EBALUAZIOEK ADIERAZTEN DUTENA

PISA, TIMSS eta PIRLS bezalako ebaluazioek, espero zenaren aurka, adierazten dute baliabideen urritasuna ez duela eragiten nabarmenki Matematika, Zientzia eta Irakurketaren emaitzetan.

Ordenadoreen erabilera eragin dezake positibikoki ikasleen alfabetatze informatikoa hobetzeko, baina ziurrenik ez du eragingo era esanguratsuan lehen aipaturako konpetentzien hobekuntzan.

KANPO EBALUAZIOETAN LORTZEN DIREN EMAITZEN ERAGINA

Irakasleok jasotzen dugun informazioa gero eta handiagoa izan, handiagoa da gure gaitasuna heziketaren erronkei aurre egiteko eta ondorioz emaitzak hobetzeko. TALIS-en arabera, irakasleek positiboki baloratzen dugu gure lanari buruz kanpo ebaluazioek eskaintzen diguten informazioa ezagutzea eta lagungarriak direla gure lanaren hobekuntzarako. Beraz, irakasleentzako gai eragingarria dela adierazten dute ebaluazio hauek.

TALIS-ek dio beharrezkoa dela ikastetxetan aplikatzen diren ebaluazio programen eraginkortasuna hobetzea, irakasleok egiten dugun lanaren kalitatea errekonozituz eta sarituz. Izan ere, *ikastetxean lan giro egoki bat sortzea, irakaskuntzari buruz dugun ikuspegia, elkar eta talde lana, irakaslearen asetasun*

EZTABAIDARAKO GALDETEGIA

Eztabaidarako 1.ATALA:

- Zein da zure ikuspegia irakasle moduan? Uste duzu bigarren ikuspegia kalitatearen faktore eragilea dela kompetentziak garatzeko?
- Zer egiten ari gara ikastetxetan bigarren ikuspegi hau bultzatzeko? Ezagutzen dituzu esperientziak zentzu honetan?
- Zeintzu dira zure ustez faktore eragile nagusiak ikasleen errendimendua hobetzeko?

Eztabaidarako 2.ATALA:

- Zeintzu dira zure ustez PISA, TIMSS, Diagnosi Ebaluazioek jokatzen duten papera irakaskuntzaren hobekuntzan? Zertan hobeto beharko dute oraingo kanpo ebaluazioek eraginkorragoak izateko?
- Irakasleok prestatuta gaude kanpo ebaluzioen emaitzak lan tresna eraginkorra bihurtzeko?
- Zer iritzi duzu pizgarri profesionalak ezartzeari buruz?

Eztabaidarako 3.ATALA:

- Zein garrantzia ematen diozu ikastetxeak barne ebaluaketa sistema bat adostua izateari? Zein arrisku ikusten dizkiozu Kalitatezko Kudeaketa Sistemai?
- Zein aspektutan eragin dezake positiboki Barne Ebaluaketa Sistema bat ikastetxeak ezarrita izateak? Uste duzu irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan eragin positiboa duela?
- Irakasleok prestatuak gaude barne prozesuak ebaluatzeko?
- Zein balorazio duzu ikastetxearen Autonomiari buruz? Zein garrantzia ematen diozu Autonomiari errendimenduaren hobekuntzan?

2010-03-08

EZTABAIDA FOROAREN EKARPENAK

Pello Aramendi koordinatzaileak azaltzen ditu eztabaida foroaren eduki garrantzitsuenak. Bere aurkezpena zentratzen da, egun PISA, TIMSS, TALIS eta horrelako kanpo-ebaluazioek aportatzen dituzten emaitzen balorazioetan. Ebaluazio hauek duten balio erlatiboa azpimarratzen du.

Diagnosi-ebaluazio berrien azterketa kritiko bat egiten du eta azaltzen du ikastetxeak jaso duten emaitzen txostenak oso orokorrak direla eta beharrezkoa ikusten duela datu zehatzagoak behar direla hobekuntza planteatzeko.

Ikastetxeek bere ikaskuntza ereduaren barne-ebaluatze sistemaren beharra azaltzen du. Ikastetxeek ikasi behar dugu gure barne-ebaluaketa sendotzen, gero kanpo-ebaluazioetako emaitzak sorpresaz ez hartzeko. Barne-ebaluaketa sendotzen dugun neurrian, kanpo-ebaluazioek garrantzi gutxiago izango dute. Kasu horretan, kanpo-ebaluazioen interesa bakarrik maila bereko ikastetxeen arteko konparaketara murgilduko litzateke.

Barne-ebaluaketarako, gaur egun teknologiek eskaintzen duten aukera ezinhobeia aipatzen du.

Amaitzeko azpimarratzen du, bizikidetzaren eta klima eskolarraren garrantzia egungo ikaskuntzan. Kanpo-ebaluazioek ez dute aspektu garrantzitsu hau neurtzen eta hau ez dugu ahaztu behar.

1. DIAGNOSI-EBALUAZIOAREN BALORAZIOA

- Ebaluazioaren Txostenak datu berriak aportatu dizkie zuzendaritza taldeen lan pedagogikoari, nahiz eta batzuentzako emaitzen aportazioa ez izan oso aberatsa.
- Zenbait ikastetxek azaltzen dute emaitzen datu batzuk harridura sortu dietela (herri euskaldunetan emaitz ez hain onak, ...).
- Froga hauen egiteak dituen baldintzak (egun konkretu eta ordu konkretu batean eginak,...) kontutan hartu behar dira emaitzei garrantzi absolutu bat ez emateko.
- Ikastetxe antzekoen arteko konparaketa da behar bada ebaluazioen aportaziorik positiboena.
- Irakasleok orohar oraindik ez dugu diagnosi-ebaluazioen helburua ulertzen. Hausnarketa beharrezkoa da aldaketa hauek zein helburu eta zentzu duten interpretatzeko.
- Irakasle batzuei estresa eta antsietatea sortu die eta aldiz besteek nahiko lasai hartu dituzte emaitzek.

- Diagnosi-ebaluazioek hiztegi berri bat ezarri dute. Irakasleok denbora eta jarraibide argiak behar ditugu aldaketa guzti hauek asimilatzen.
- Diagnosi-Ebaluazioek neurtu nahi dituzten konpetentziak lotura zuzena dute ikaslea bere ikaskuntza prozesuaren protagonista nagusia izatearekin. Honek, irakasleen rola eta metodologiá aldatzea eskatzen du.
- Irakasleon lana oso lotuta egon da edukiak irakastearekin, ikaslearen parte hartzea aktiboa gehiegi landu gabe. Gure lan egiteko ohiturak eta kultura aldatzea eskatzen digu konpetentzietan oinarritutako curriculumak.
- Diagnosi-Ebaluazioek aldaketa metodologikora bultzatu behar digute. Gure hezkuntza jardueren birplanteaketara eraman behar digute.
- Irakasle batzuk emaitza konkretuagoak eskatzen dituzte. Ikastetxetara bidali diren emaitzek orokorrekiak dira eta irakasleei ez die asko aportatzen bere metodologiá didaktikoa zuzentzeko. Matematikan bereziki, datu zehatzagoak behar direla aipatzen da.

2. HOBEKUNTZA PLANAREN EGITE PROZESUA

- Zuzendaritza taldeek arazoekin aurkitzen dira zenbait Mintegiei hobekuntzak eskatzeko garaian. Zuzendaritza taldeei autoritatea eman eta errekonozitu behar zaie.
- Hobekuntza Planak zein ikasleei begira planteatu behar diren aipatzen da. Froga ikasle batzuk pasa dute eta orain hobekuntza plana beste batzuei planteatu behar zaie? Ikasle guztientzako planteatu behar da hobekuntza? Zein baliabide ezarriko ditu Hezkuntza Sailak hobekuntzak ahalbidetzeko?.
- Diagnosi-ebaluazioek barne-ebaluaketa hobetzera bultzatu behar gaitu. Horretarako, gauza sinple eta zehatzetatik hasiz Mintegien hausnarketa bideratu behar dugu.
Prozesu honetan, irakasleak bere autoebaluazio egitea ezinbestekoa da eta honek oraindik arazoak sortzen dizkigu irakasleoi.
- Hobekuntza-Planaren xedea, ikaskuntza prozesuaren aspektu bat hobetzea izan behar du(ad: irakurketa). Hobekuntza Plan anbiziosoegiak egitea ez da estrategia egokia.
- Diagnosi-ebaluazioak, denon artean hobekuntzarako tresna eta ez fiskalizaziorako tresna bihurtzea, garrantzitsua da sistemaren bideragarritasuna bermatzeko. Prozesu honetan, zuzendaritza taldeen lidergoa ezinbestekoa da hobekuntzak eta ohitura aldaketak progresiboki ahalbidetzeko.
- Zuzendaritza taldeen lidegorik gabe oso zaila izango da hobekuntzak gauzatzea..

3. DIAGNOSI-EBALUAZIOEN HOBEKUNTZA

- Diagnosi-ebaluzio sistema beraren hobekuntzari ere arreta ezarri behar zaio. Ebaluazio-sistema zerbait dinamikoa izan behar du eta ez eredu finko bat. Horretarako, irakasle eta familien ekarpenak kontutan hartu behar dira.
- Ebaluazio eta Hobekuntza Planak burokratizatzeko arriskua ikusten dute zenbaitek.
- Oso apalak izan behar gara, ebaluazio hauen garrantzia, erabilera eta hobekuntzaren helburuek planteatzeko orduan. Etekin handiena ateratzeko denok batera (irakasleak, aholkulariak, ikuskariak) lan egin behar dugu.
- Barne-ebaluazio eragiteko eta hobekuntza sustatzeko irakasleriaren prestakuntzari arreta ezarri behar zaio. Kanpo-ebaluazioa funtsezkoa izateko, gure barneko-ebaluazioa birmoldatu eta sistematizatzea beharrezkoa da.
- Diagnosi-ebaluazioek hobekuntzarako tresna direla frogatu behar da. Ez du zentzurik diagnosi-sistema mantentzea (inbertsioak, esfortzua,...) ez badu sistemaren hobekuntzarik sortzen.

4. DIAGNOSI-EBALUAZIOEN MAIZTASUNA

- Diagnosi-ebaluazioak dakarren lan prozedura lanetsua da, eta denbora eta esfortzu asko eskatzen digu ikastetxe eta zuzendaritza taldeei.
- Ikastetxeok emaitzak garaiz ezagutu behar ditugu hobekuntzak ondo pentsatzeko eta zehazteko. Horrela Urteko Planaren barnean sartu ahal izango genuke.
- Diagnosi-ebaluazioek eskatzen duten esfortzua, etabar ikusita, urtero egin beharrean bi urtez behin egitea proposatzen da. Horrela, irakasleen prestakuntza definitzeko eta egiteko aukera emango luke eta horrela hobekuntzei hobeto erantzuteko aukera izango genuke. Gai honetan azkarregi joateak, gauzak sakontasunez egiteko oztopoa izan daiteke.

BIHE elkartearen izenean, parte hartzaileei eskerrak eman ondoren amaitzen da eztabaida foroa.

2010eko Martxoan